



# EHU-KO GARBITZAI LEAK

Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko kanpuseko garbitzaileen komitearekin hitz egiteko aukera izan dugu oraingo honetan. Jada ezaguna da sektore honetako emakumeek aurrera eramandako borroka: greba deialdi luzeak eta mobilizazioak. Aldiz, egoera guztiz aldatu zaie egungo testuinguruan. Baina, zein da euren egoera? Zer aldarrikatzen dute?

Azaldu digute EHUko garbitzaileen eginbeharra kanpuseko fakultate ezberdinak garbi mantentzea dela: zaborren bilketa, altzarien eta lurraren garbiketa, komunen desinfektatzea, etab. Hala ere, fakultate guztiek ez omen dute zerbitzu berdinen beharra; “batzuetan laborategiak daude eta egiten den lanaren forma ezberdina izaten da”.

Garbiketa sektorea zabala eta askotarikoa dela aipatu digute: “orokorrean, baldintzak prekarioak dira, langileen gehiengoak lan karga handia izaten du”. Aipatu digute existitzen diren hitzarmenen arabera desberdintasun laboral eta ekonomikoak nabariak direla eta EHUk konkretuki 2000. urtean greba baten ondoren hobekuntza bizi izan zuen hitzarmen bat dutela, baina orokorrean oso gutxi baloraturiko sektorea dela.

Une honetan, alde batetik, soldatak EAeko hezkuntzako eta UPVko langileekin parekatzea eskatzen dute, “soldata arrakala %13koa baita” eta bestetik, lanaldi partzialak luzatzea, baldin eta erretiroengatik, langileak gehitzeagatik eta abarregatik hutsik geratzen badira. Euren lema “Soldata berdina, lan berdinegatik” da. Exijentziak alde batetik Garbialdi, ISS eta OHL enpresei zuzenduak doazela esplikatu digute, hauek baitira EHUK momentuan dituen azpikontratazkoak eta bestetik, hezkuntza sailari eta EHUri, horiek baitira “kontratazioak preziorik baxuenak dituzten enpresei esleitzen jarraitzen dutenak”.

Argitu digute gidatzen dituen hitzarmenak administrazioko langileekin parekatzen dituen artikulua bat barnebiltzen duela eta hala ere, bost urte daramatzatela negoziazioarekin atzera eta aurrera. “2017an jada bost eguneko greba aurrera eramanez gero eta ez geunen ezer lortu eta bitartean Eusko Jaurlaritzak beste aldera begiratzen du”. Guzti horrek bost astetako greba deialdia luzatzera behartu zituen EHUko garbitzaileak, baina Covid-19aren krisiak atzera bota zuen hori, “baldintza berdinetan edo okerragoetan bueltatu behar izan dugu lanera, ez baitzikigute babes

neurriak ere ematen". Etorkizuna orokorrean ezezaguna bada ere, bukaera itxaropentsu bat eman diote elkarrizketari eta beraien borroka momentuan geldirik badute ere, ahal bezain laster berrartuko dutela zin egin dute.